

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

IRAGARKIA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko otsailaren 15eko Aginduan jasotako laguntza-eskariei buruzko espedienteak osatzeko agirien errekerimendua egiten duena. Agindu horren bidez, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzak ematea arautu eta horietarako deialdia egiten da (EHAA, 38. zk., 2006ko otsailaren 23koa). 13533

OSASUN SAILA

IRAGARKIA 111/06 administrazioarekiko auzi errekurtsuan interesdun direnak epatzeko dena (prozedura laburtua). 13537

IRAGARKIA, 23/06 administrazioarekiko auzi errekurtsuan interesdun direnak epatzeko dena (prozedura laburtua). 13538

IRAGARKIA 100/06 administrazioarekiko auzi errekurtsuan interesdun direnak epatzeko dena (prozedura laburtua). 13538

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARRAIOKO ARBITRAJE BATZORDEA

EDIKTUA, 99/05 espedienteko jakinarazpen-zendulari buruzkoa. 13539

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3340

119/2006 DEKRETUA, ekainaren 13koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Defentsa Erakundearen antolakuntza eta funtzionamenduaren Araudia onartzen duena.

2002/73/CE zuzentarauaren 8. bis artikuluan eta 2004/113/CE zuzentarauaren 12. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Defentsa Erakunde sortu eta konfiguratu du. Organo independente horren xedea Euskal Autonomia Erkidegoan sek-

Otros Anuncios Oficiales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

ANUNCIO por el que se procede al requerimiento de documentación para completar expedientes relativos a las solicitudes de ayudas contempladas en la orden de 15 de febrero de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se convoca y regula la concesión de subvenciones para el apoyo a las familias con niños y niñas menores de tres años y para la consolidación de la red de centros de atención a la infancia para menores de tres años (BOPV n.º 38 de 23 de febrero de 2006). 13533

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 111/06. 13537

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 23/06. 13538

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 100/06. 13538

JUNTA ARBITRAL DEL TRANSPORTE DEL PAÍS VASCO

EDICTO relativo a la cédula de notificación en el expediente n.º 99/05. 13539

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3340

DECRETO 119/2006, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 8 bis de la Directiva 2002/73/CE y en el artículo 12 de la Directiva 2004/113/CE, la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres crea y configura la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres como un órgano de carácter independiente que tiene por objeto velar por el cumplimiento del prin-

tore pribatuan sexuagatik gertatzen diren bazterketa-ko egoera edo jardunbideetan tratuaeren berdintasunaren abiaburua bete dadila zaintzea da.

Araudi honek otsailaren 18ko 4/2005 Legearen IV. tituluan xedatuta dagoena garatzen du, eta Defentsa erakundearen antolakuntza eta funtzionamendua eraentzeko arauak zehazten ditu. Besteak beste, araudi honek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailearen zereginak arautzen ditu, baita defentsa-erakundeko langileen araubidea, ekonomia- eta finantza-araubidea, bazterketa-egoeretako ikerkuntza-prozedura eta Defentsa-erakundearen eta gainontzeko erakundeen arteko harremana ere.

Ondorioz, Lehendakartzaren proposamenez, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko ekainaren 13ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Xedea.

Araudi honen xedea Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Defentsa Erakundearen antolakuntza eta funtzionamendua arautzea da, erakunde horrek legeak agintzen dizkion helburuak bete ditzan.

2. artikulua.— Izaera juridikoa.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita egongo da, haren egitura hierarkikoan txertatu gabe, eta bere eginkizunak betetzeko erabateko autonomia izango du Administrazioari dagokionez.

3. artikulua.— Helburuak eta eginkizunak.

1.— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen helburuak hauek dira: Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratuberdintasunaren abiaburua bete dadila sustatzea eta sektore pribatuan sexuagatik gertatzen diren bazterketa-egoeretan herritarrak defendatzea.

2.— Defentsa Erakundearen zereginak otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 64. artikuluan bildutakoak dira.

II. KAPITULUA ANTOLAKUNTZA

1. ATALA ORGANO GORENAK

4. artikulua.— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailea.

cipio de igualdad de trato de la Comunidad Autónoma de Euskadi y defender a la ciudadanía ante posibles situaciones o prácticas discriminatorias por razón de sexo que se produzcan en el sector privado.

El presente reglamento desarrolla lo dispuesto en el Título IV de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, y determina las normas que rigen la organización y el funcionamiento de la Defensoría. Entre otras cuestiones, este reglamento regula las funciones de la defensora o defensor para la Igualdad de Mujeres y Hombres, el régimen del personal de la Defensoría, su régimen económico financiero, el procedimiento de investigación ante posibles situaciones de discriminación y la relación de la Defensoría y con el resto de instituciones.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 13 de junio de 2006,

DISPONGO:

CAPITULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto.

Este reglamento tiene como objeto regular la organización y el funcionamiento de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres para que ésta cumpla los fines que la ley le encomienda.

Artículo 2.— Naturaleza jurídica.

La Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres, de conformidad con lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se configura como un órgano que ejerce sus funciones con plena autonomía respecto a la Administración y que se adscribe a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer sin integrarse en su estructura jerárquica.

Artículo 3.— Fines y funciones.

1.— Los fines de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres son la promoción del cumplimiento del principio de igualdad de trato de mujeres y hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi y la defensa de la ciudadanía ante situaciones de discriminación por razón de sexo relativas al sector privado.

2.— Son funciones de la Defensoría las recogidas en el artículo 64 la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

CAPITULO II ORGANIZACIÓN

SECCIÓN 1.ª ÓRGANOS SUPERIORES

Artículo 4.— El defensor o defensora para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

1.– Defentsa Erakundearen titularra Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailea da, eta hori izendatzeko nahiz hark kargua uzteko jaramon egingo zaio otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusita dagoenari.

2.– Defendatzaileak Autonomia Erkidegoaren Administraziozuzendariaren Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuetan esleituta dauzkaten ordainsariak jasotzen ditu, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren aurka ez doan guztian kargu horiek arautzen dituzten arauak aplikatu zaizkio.

5. artikulua.– Eginkizunak.

Hona defendatzailearen eginkizunak:

- a) Defentsa Erakundea ordezkatzea.
- b) Defentsa Erakundeari orokorrean agindutako zereginak betetzea.
- c) Eusko Legebiltzarrarekin, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, Ararteko erakundearekin eta gainontzeko herri agintari, Administraziozuzendariaren organo eta tokiko, erkidegoko, estatuko edo estatuaz gaindiko antzeko organoen titularrekin harreman zuzenak edukitzea.
- d) Erakundearen harreman zuzenei eustea, dela erreklamazioak egiten dituzten herritarrekin, dela Defentsa Erakundearen jardueraren eraginpean dauden pertsona fisiko eta juridikoekin.
- e) Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aurreikusten dituen urteko eta aparteko txostenak egin eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztea.
- f) Erakundearen langileria-politika zuzentzea, eta bereziki: organo eskudunei langileriaren konfigurazioa proposatzea, aurrekontuaren aukeren barruan; aholkulariak eta konfiantzazko langileak izendatzea eta karguaz gabetzea, bai eta haien ordainsariak proposatzea; diziplina-ahalmena erabiltzea; halaber, langileen prestakuntza-planak prestatzea, gai horretan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkion eskumenei kalterik egin gabe.
- g) Erakundearen nahiz berori osatzen duten zerbitzuen administrazio-zuzendaritza nagusia burutzea, eta barneko jarraibideak ematea, zerbitzu horiek hobeto antolatzeke.
- h) Defentsa Erakundearen helburuak lortzea xede duten akordioak edo hitzarmenak sinatzea, eta horretarako administrazio ebazpenak ematea. Ebazpen horiek administrazio-bidea amaituko dute.
- i) Ikerketa-prozeduraren hasteaz eta ebazpenaz erabakitzea.
- j) Administrazioaren kabuz hasten diren jardueren buruzko eta egin beharreko aparteko txostenen buruzko erabakia hartzea, eta sexu-bazterkeriaren aurkako arauen balioespenari eta azterketei buruzko eta arau horien aplikazioari buruzko erabakia hartzea.

1.– La persona titular de la Defensoría es el defensor o defensora para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y su nombramiento y cese se producirán en la forma prevista en el Ley 4/2005, de 18 de febrero.

2.– El defensor o defensora percibe las retribuciones que en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma tienen asignados los directores o directoras de la Administración de la Comunidad Autónoma y le son de aplicación, en todo aquello que no contradigan lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, las normas que regulan dichos cargos.

Artículo 5.– Funciones.

A la defensora o defensor le corresponde:

- a) Representar a la Defensoría.
- b) Ejercer las funciones encomendadas con carácter general a la Defensoría.
- c) Mantener las relaciones directas con el Parlamento Vasco, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, la institución del Ararteko y con el resto de poderes públicos, órganos de la Administración y titulares de los órganos de análoga naturaleza de ámbito local autonómico, estatal o supraestatal.
- d) Mantener las relaciones directas de la institución con las ciudadanas y ciudadanos reclamantes, así como con las personas físicas y jurídicas sometidas a la actuación de la Defensoría.
- e) Elaborar y presentar al Parlamento Vasco los informes anuales y extraordinarios que prevé la Ley 4/2005 de 18 de febrero.
- f) Dirigir la política de personal de la institución y, en particular: proponer a los órganos competentes, en el marco de las disponibilidades presupuestarias, la configuración de la plantilla de personal; nombrar y cesar a las y los asesores y al personal de confianza y proponer sus retribuciones; ejercer la potestad disciplinaria; así como preparar planes de formación del personal, sin perjuicio de las competencias que en esta materia corresponden al Instituto Vasco de Administración Pública.
- g) Ejercer la superior dirección administrativa de la institución y de los servicios que la componen, así como dictar instrucciones de orden interno para la mejor ordenación de los mismos.
- h) Suscribir acuerdos o convenios y dictar resoluciones administrativas para la consecución de los fines atribuidos a la Defensoría. Dichas resoluciones pondrán fin a la vía administrativa.
- i) Decidir sobre la iniciación y resolución del procedimiento de investigación.
- j) Decidir sobre las actuaciones de oficio y sobre los informes extraordinarios a realizar, así como sobre las evaluaciones y estudios relativos a la normativa antidiscriminatoria por razón de sexo y su aplicación.

k) Erakundearen lanaren eta bere ikerkuntza, txosten eta azterlanen ezaugarrien berri ematea.

l) 7. artikulua araberako aurrekontuak direla-eta defendatzailearen eskuetan dauden eskumenak erabiltzea.

m) Defentsa-bulegoaren izenean, eginkizunak betetzeko beharrezkoak dituen hitzarmen publikoak eta pribatuak ematea, Gobernu Kontseiluari eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailari ekainaren 5eko 136/1996 Dekretu bidez emandako aginpideei ezer kendu gabe (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko kontratazio-araubideari buruzkoa da dekretu hori).

n) Espedienteen itxiera formalizatzea.

ñ) Ziuertagiriak egitea.

2. ATALA LANGILEAK

6. artikulua.– Xedapen orokorra.

1.– Defentsa Erakundeko langileak aholkulariak eta konfiantzazko langileak eta Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko nahiz horren erakunde autonomoetako funtzionarioak izango dira.

2.– Aholkularitzako edo konfiantzazko lanpostuak betetzen dituzten langileak Defentsa Erakundeko titularrak bere kabuz izendatzen eta kargutik kentzen ditu, aurrekontuko mugen barruan. Titularrak kargua uzten duenean ere langileek kargua utziko dute berehala.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako langileei Autonomia Erkidegoaren Administrazioko behin-behineko edo konfiantzazko langileen araubide juridikoa aplikatzen zaie, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean eta Gobernu Kontseiluaren 2002ko martxoaren 12ko erabakian xedatuta dagoen araberako, azken horren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko behin-behineko langileen araubide juridikoa orokorrean eta egitura alderdian arautzeko proposamena onartu baitzen.

4.– Defendatzaileari dagokio bere langile aholkularien edo konfiantzazko langileen ordainsariak proposatzea, aurrekontu-baliabideen barruan.

5.– Gainontzeko langileen araubide juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen zerbitzuko langile funtzionarioentzat ezarritakoa da, eta defendatzaileari dagokio organo eskudunei langileak nahiz lanpostu bakoitzaren ezaugarri eta eskakizunak proposatzea, aurrekontu-baliabideen barruan.

6.– Agintaritzea edo ikuskaritzea erabiltzeari lotutako eginkizunak dituzten lanpostuak karrerako funtzionarioek bete beharko dituzte.

k) Divulgar la naturaleza del trabajo de la institución y sus investigaciones, informes y estudios.

l) Ejercer las competencias que en materia presupuestaria se le atribuyen a la Defensoría en virtud del artículo 7.

m) Otorgar, en nombre de la Defensoría, los contratos públicos y privados necesarios para el desarrollo de sus funciones, sin perjuicio de las facultades atribuidas al Consejo de Gobierno y al Departamento de Hacienda y Administración Pública por el Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

n) Formalizar el cierre de expedientes.

ñ) Expedir certificaciones.

SECCIÓN 2.ª PERSONAL

Artículo 6.– Disposición general.

1.– El personal al servicio de la Defensoría está constituido por asesores y asesoras y personal de confianza, así como por personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y de sus organismos autónomos.

2.– El personal que desempeña puestos de trabajo considerados de asesoramiento o de confianza es nombrado y cesado libremente por la persona titular de la Defensoría dentro de los límites del presupuesto. También cesa automáticamente cuando lo hace ésta.

3.– Al personal referido en el párrafo anterior se le aplica el régimen jurídico del personal eventual o de confianza de la Administración de la Comunidad Autónoma, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 6/1986, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en el Acuerdo de 12 de marzo de 2002 del Consejo de Gobierno, por el que se aprueba una propuesta de regulación general y estructural del régimen jurídico del personal eventual al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– Corresponde a la defensora o defensor proponer, en el marco de las disponibilidades presupuestarias, las retribuciones de su personal asesor o de confianza.

5.– El régimen jurídico del resto del personal es el establecido para el personal funcionario al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus organismos autónomos, y le corresponde al defensor o defensora, en el marco de las disponibilidades presupuestarias, proponer a los órganos competentes la plantilla de personal y las características y requisitos de cada puesto de trabajo.

6.– Los puestos de trabajo que tengan asignadas funciones que impliquen el ejercicio de la autoridad e inspección deben ser ocupados por funcionarios o funcionarias de carrera.

7.– Defendatzaileak aurreko paragrafoan azalduetako langileei izaera hori dutela egiaztatzeko agiria eskuratu beharko die. Agiri hori norberarena eta besterenezina izango da. Egiaztatutako pertsonak kargua uztean, agiri horrek balioa galduko du. Otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako baldintzetan defendatzailearen ikerkuntza-jardueraren eraginpean dagoen pertsona fisiko eta juridiko ororen aurrean agertzeko ahalmen nahikoa ematen du agiri horrek.

8.– Defentsa Erakundearen zerbitzuko pertsona orok zuhurtzariak zorrotzenaz jokatu beharko du bertan tramitatzen diren gaietarako.

3. ATALA

EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA

7. artikulua.– Aurrekontu-araubidea.

1.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen zuzkidura ekonomikoak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen aurrekontuan zainpetuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren barruan.

2.– Jardute-esparrua dela-eta, indarrean dauden arauak Emakunderi erakunde autonomo modura ematen dizkioten aginpide eta eskumen guztiak izango ditu, defentsa-erakundeak aurrekontuen gainean. Eta eskumen-aginpide horien erabileraren berri Emakunde-ko zuzendaritzari eman behar dio.

8. artikulua.– Kontratazioa eta sustapena.

1.– Defendatzailearen eginkizunak betetzeko beharrezko ondasun eta zerbitzuen kontratazioan, Euskal Autonomi Erkidegoko administrazio orokorraren kontratazio publikoari buruzko arauak agintzen dute.

2.– Defentsa Erakundeak egokitzen jotzen dituen erakunde publiko eta pribatu guztiekin lankidetzat hartzen sinatu ahal ditu, emanda dituen zereginen barruan.

3.– Defentsa Erakundeak, emanda dituen eginkizunen eta aurrekontuko aurreikuspenen arabera, bekak eta laguntzak edo diru-laguntzak eman ahal ditu interesgarritzat jotzen dituen jarduerak egiteko, helburu horrekin erakunde eskudunek onartzen dituzten arau erregulatuak barruan.

III. KAPITULUA FUNTZIONAMENDUA

1. ATALA XEDAPEN OROKORRAK

9. artikulua.– Xedapen orokorrak.

1.– Defentsa Erakundearen funtzionamendua, hark bere eskumenak baliatzen dituela, otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta araudi honetan ezarritakoaren arabera izan behar da.

7.– La Defensora o Defensor ha de extender al personal referido en el párrafo anterior un documento acreditativo de dicha condición, con carácter personal e intransferible. Éste perderá su valor cuando se produzca el cese de la persona acreditada. La exhibición de dicho documento será título habilitante suficiente para personarse ante cualquier persona física y jurídica sometida a la acción investigadora de la Defensoría, en los términos previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

8.– Toda persona al servicio de la Defensoría está sujeta a la obligación de mantener estricta reserva en los asuntos que ante ella se tramiten.

SECCIÓN 3.ª

RÉGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO

Artículo 7.– Régimen presupuestario.

1.– Las dotaciones económicas de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres se consignarán en el presupuesto de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer dentro los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– Por lo que respecta a su ámbito de actuación, la Defensoría dispone en materia presupuestaria de todas las facultades y competencias que la normativa vigente atribuye como organismo autónomo a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, a cuya Dirección debe informar sobre el ejercicio de las mismas.

Artículo 8.– Contratación y fomento.

1.– La contratación y adquisición de bienes y servicios necesarios para el ejercicio de las funciones de la Defensoría se rige por la normativa en materia de contratación pública de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

2.– La Defensoría puede suscribir acuerdos o convenios de colaboración con cuantos organismos públicos y privados estime oportuno, en el marco de las funciones que tiene atribuidas.

3.– La Defensoría, en el ámbito de las funciones que tiene encomendadas y conforme a las previsiones presupuestarias, puede conceder becas y ayudas o subvenciones para la realización de actividades que estime de interés, en el marco de las normas reguladoras que a tal fin aprueben los órganos competentes.

CAPITULO III FUNCIONAMIENTO

SECCIÓN 1.ª DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 9.– Disposiciones generales.

1.– El funcionamiento de la Defensoría, en el ejercicio de sus competencias, se ha de ajustar a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, y en este reglamento.

2.– Defentsa Erakundeak kexa bat aurkezteak eta gero, hala badagokio, hori onartzeak, ez du inola ere esan nahi administrazio edo jurisdikzio bideetan errekurtsioa jartzeko epeak balio gabetuko direnik, ezta ebazpenaren edo eragindako egintzaren burutzapena etengo direnik ere. Defentsa Erakundeak horren berri eman beharko die kexa aurkezten duten pertsonen.

3.– Defentsa Erakundeak ez ditu zertan banan-banan aztertu behar pertsonen intimitateari buruzko kexak, ezta epai irmoa dutenei edo epailearen ebazpena oraindik ez dutenei buruzkoak ere. Halaber, egintza hasi eta gero interesdunak auzitegi arruntetan edo Konstituzio Auzitegian demanda edo errekurtsioa aurkeztuz gero, egintza hori eten beharko du.

4.– Defentsa Erakundeak ez dauka eskumenik bazterketako egintzak ezeztatu, balio gabetu edo zehatzeko.

2. ATALA

IKERKETA-PROZEDURAREN HASIERA

10. artikulua.– Prozedura hasteko moduak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak ikerketari bere kabuz edo aldeek eskatuta eman ahal dio hasiera.

11. artikulua.– Administrazioak bere kabuz hastea.

1.– Arlo pribatuan izaniko jarrera edo gertakariren bat sexu-bazterkeria izan badaiteke, titularraren dena delako akordioaren arabera, defentsa-erakundeak ikerketa-prozedura bere kabuz has dezake, berdin dio jarrera edo gertakari horren berri bere ekimenez izan duen, beste erakunde batzuen eskari arrazoitu bidez izan duen edo salaketa bidez izan duen.

2.– Kanpotik eskari arrazoituen bat jasotzen badu. Defentsa-erakundeak, halakoetan, erakunde eskari-egileari prozedura hastea erabakitzen ote duen edo ez jakinarazi beharko dio.

3.– Salaketa horietan, salaketa nork aurkezten duen, sexu-bazterkeria izan daitezkeen gertakari horien azalpena, eta, ahal bada, ustez arduraduna nor izan daitezkeen ere adierazi beharko da. Salaketarekin batera prozedura hasteko eskaria aurkezten badute, defentsa-erakundeak salaketa-egileari prozedura hastea egokia den edo ez eta zergatik den edo ez den egokia adierazi beharko dio.

4.– Prozedura hasi baino lehenago, defentsa-erakundeak bere esku izango du aurretiazko hainbat jarduerak egitea, aurretiaz jakiteko prozedura hasteko arrazoirik baldin badago.

2.– La presentación de una queja ante la Defensoría, así como su posterior admisión, si procediera, no depende en ningún caso los plazos previstos en las leyes para recurrir, tanto en vía administrativa como jurisdiccional, ni la ejecución de la resolución o acto afectado. La Defensoría debe informar de ello a las personas que presenten la queja.

3.– La Defensoría no ha de entrar en el examen individual de las quejas referidas al ámbito de la intimidad de las personas ni sobre las que haya recaído sentencia firme o estén pendientes de resolución judicial. Asimismo, debe suspender la actuación si, iniciada ésta, se interpusiera por la persona interesada demanda o recurso ante los tribunales ordinarios o el Tribunal Constitucional.

4.– La Defensoría no tiene competencia para revocar, anular o sancionar actos discriminatorios.

SECCIÓN 2.ª

INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO INVESTIGACIÓN

Artículo 10.– Formas de iniciación del procedimiento.

La Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres puede iniciar la investigación de oficio o a instancia de parte.

Artículo 11.– Iniciación de oficio.

1.– En virtud del correspondiente acuerdo de su titular, la Defensoría puede iniciar de oficio el procedimiento de investigación cuando, bien por propia iniciativa, a petición razonada de otros órganos o por denuncia, haya tenido conocimiento de conductas o hechos, referidos al sector privado, que pudieran ser constitutivos de discriminación por razón de sexo.

2.– La formulación de una petición razonada no vincula a la Defensoría, si bien ésta debe comunicar al órgano que la haya planteado la decisión sobre la apertura o no del procedimiento.

3.– Las denuncias deben expresar la identidad de la persona o personas que las presentan, el relato de los hechos que pudieran constituir discriminación por razón de sexo y, cuando sea posible, la identificación de quienes pudieran ser presuntamente responsables. Cuando la denuncia vaya acompañada de una solicitud de iniciación del procedimiento, la Defensoría ha de comunicar a quien la haya interpuesto la procedencia o no de incoar el procedimiento y los motivos de dicha decisión.

4.– Con anterioridad a la iniciación del procedimiento, la Defensoría puede realizar actuaciones previas con objeto de determinar con carácter preliminar si concurren las circunstancias que justifiquen tal iniciación.

12. artikulua.– Aldeek eskatutako hasiera.

1.– Edozein pertsonak edo pertsona taldek, edo haien legezko ordezkariak aurkeztu ahal dituzte kexak Defentsa Erakundearen, baldin eta sektore pribatua sexuagatik bazterketa jasan badute.

2.– Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren abiaburua betetzea xede duten elkarteek, erakundeek eta beste pertsona juridikoek baztertua dagoela uste duen pertsonaren izenean edo hari laguntzeko prozedura hasi eta bertan parte hartzeko zilegitasuna dute, baldin eta haren baimena badute.

3.– Eragindako pertsonaren nazionalitatea, bizilekua, adina edo legezko ezgaitasuna ez dira izango Defentsa Erakundera jotzeko eragozpenak.

4.– Eragindako pertsonak kexa kendu nahi duela adierazten badu ere, Defentsa Erakundeak ikerketaren prozeduran aurrera egin dezake.

13. artikulua.– Kexa aurkezteko modua.

1.– Kexak idatziz edo ahoz aurkeztu ahal dira. Nolanahi ere, arrazoituta egon behar dira, eta kasua argitzeko balio ahal duten agiri guztiak ere aurkeztu behar dira. Halaber, kexan data, lekua, eragindako pertsonaren identifikazioa, eta jakinarazpenetarako nahiago den bide edo lekua agertu behar dira; eta kexa zein pertsona fisiko edo juridikoren aurka aurkezten den, horren identifikazioa ere bai.

2.– Ahozko kexak Defentsa Erakundearen egoitzako bulegoan soilik aurkeztu ahal dira. Kexa horiek transkribatuko dira, eta eragindako pertsonak gero irakurri eta sinatuko ditu.

14. artikulua.– Kexen erregistroa.

Eragindako kexa guztiak erregistratu behar ditu Defentsa Erakundeak, baita horiek jaso izana adierazi ere.

15. artikulua.– Onar daitekeen edo ez.

1.– Kexa alde zuzenetik baloratu behar da, onargarria den ebazteko. Kexak ez dira onartuko ondoko inguruabarretariko bat gertatzen bada:

a) 12. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoaren arabera legitimazio aktiborik ez badago.

b) Kexa aurkezteko arrazoi izan diren jokabide edo gertakariak amaitu eta urtebete igaro bada.

c) Eragindako pertsona gisa kexa nork egin duen identifikatu ez bada.

d) Asmo txarra egon bada edo prozedura neurritz gain erabiltzen bada. Kasu horietan, kriminaltasun-zantzurik badago, eskumena duen Agintaritza Judizialari jakinarazi behar zaio.

e) Argi eta garbi funtsik batere ez badu.

Artículo 12.– Iniciación a instancia de parte.

1.– Cualquier persona o grupo de personas que consideren que han sufrido una discriminación por razón de sexo relativa al sector privado o quienes legítimamente les representen, puede presentar una queja ante la Defensoría.

2.– Las asociaciones, organizaciones y otras personas jurídicas que tengan entre sus fines velar por el cumplimiento del principio de igualdad de trato de mujeres y hombres están legitimadas para iniciar y tomar parte en el procedimiento en nombre o en apoyo de la persona que se considere discriminada cuando cuenten con su autorización.

3.– No puede constituir impedimento para dirigirse a la Defensoría la nacionalidad, la residencia, la edad o la incapacidad legal de la persona afectada.

4.– La Defensoría puede continuar el procedimiento de investigación incluso en el caso de que la persona afectada manifestara su deseo de retirar la queja.

Artículo 13.– Forma de la queja.

1.– Las quejas se pueden presentar por escrito u oralmente. En cualquier caso han de estar motivadas y acompañadas de cuantos documentos puedan servir para esclarecer el caso. Asimismo, en ellas debe constar la fecha y el lugar, la identificación de la persona afectada y del medio preferente o del lugar a efectos de notificaciones y la identificación de la persona física o jurídica contra la que se formula la queja.

2.– Las quejas orales sólo pueden ser presentadas en la oficina en que tiene su sede la Defensoría. Estas quejas serán transcritas y posteriormente leídas y firmadas por la persona afectada.

Artículo 14.– Registro de quejas.

La Defensoría ha de registrar y acusar recibo de todas las quejas que se le formulen.

Artículo 15.– Admisibilidad.

1.– La queja ha de ser objeto de valoración previa con el fin de resolver su admisibilidad. Las quejas no serán admitidas cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Se carezca de legitimación activa, conforme a lo dispuesto en los párrafos 1 y 2 del artículo 12.

b) Haya transcurrido el plazo de un año desde que cesó la conducta o hechos susceptibles de motivar la queja.

c) No se identifique quién formula la queja como persona afectada.

d) Exista mala fe o un uso abusivo del procedimiento. En estos casos, si existen indicios de criminalidad se han de poner en conocimiento de la Autoridad Judicial competente.

e) Sea manifiestamente infundada.

f) Kexa aurkezteko eskakizunen hutsak konpontzeko eskatzen diren datu edo agiriak epearen barruan aurkezten ez badira.

g) Defentsa Erakundeak lehenago aztertu duen gai bati buruzkoa bada.

h) Defendatzailearen eskumenaren arloarekin zerikusia ez badu. Ararteko Erakundeari edo Herriaren Defentsariaren Erakundeari igorri behar zaizkio baten eta bestearen eskumenen arloekin zerikusia duten kexak.

2.– Defentsa Erakundeak kexa bat tramitatzea bidezkoa ez dela erabakitzen badu, interesdunari jakinarazi behar dio ebazpen arrazoitu baten bidez, eta ebazpen horren aurka errekurtsioa jartzeko aukeraren berri eman beharko dio, eta hala badagokio, kasua ezagutzeko eskumena duten erakundeen berri ere bai.

3.– Behin kexa onartuz gero, defentsa-erakundearen titularrak prozeduraren hasierako akordioa hartu beharko du, eta, akordio horretan, gauza hauek denak jaso beharko dira, gutxienez: nor diren jarrera edo gertakari baztertzailen horien ustezko arduradunak, prozeduraren hasiera ekarri duten gertakariak eta espedientearen nork izapidetu behar duen, hartara, beharrezkoa bada, errefusa ahal izan dezaten, indarrean dauden legeen arabera.

4.– Hasiera-akordioa prozedura izapidetu behar duenari janarazi beharra dago, eta baita kexa jaso duenari eta kexa aurkeztu duenari ere, baldin eta alderdiren baten eskariz eman bazaio hasiera.

3. ATALA INSTRUKZIOA

16. artikulua.– Ikerketa-eginbideak.

1.– Hasiera-akordioa hartu ondoren, gertakariak argitzeko beharrezko ikerketa-eginbideak egin beharko dira. Defentsa Erakundearen ikerketa-egintzak zuzenean lotuta egon behar dira bazterketako jokabide edo gertakariekin, eta horiek argitzeko behar-beharrezko egintzak egin ahal izango dira, besterik ez.

2.– Defendatzailearen ikerketaren eraginpean dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiek haren lana erraztu behar dute. Horretarako, Defendatzaileak adierazitako epean (gutxienez hamar egun) gertakariak argitzeko beharrezkoak izanik eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo argibideak eman beharko dituzte, eta aldeztu aurretik ohartarazita haien egoitzetara sartzeko baimena eman beharko dute, baldin eta egoitza horietan bizilekua ez badute. Hala izanez gero, berariazko baimena izan beharko da.

f) No se aporten en plazo los datos o documentos que se soliciten con el fin de subsanar la falta de requisitos exigidos para la formulación de la queja.

g) Se refiera a una cuestión que ya ha sido examinada por la Defensoría.

h) No esté relacionada con el ámbito de competencia del defensor o defensora. Se han de remitir a la institución del Ararteko o a la del Defensor del Pueblo las quejas relacionadas con sus respectivos ámbitos de su competencia.

2.– En caso de que la Defensoría considere que no procede la tramitación de la queja, se lo debe notificar a la persona interesada mediante resolución motivada, informándola sobre la posibilidad de recurrir ante los tribunales dicha resolución y, en su caso, sobre las instituciones competentes para el conocimiento del caso.

3.– Admitida la queja, la persona titular de la Defensoría ha de dictar el correspondiente acuerdo de iniciación del procedimiento, en el que se deberán hacer constar, al menos, las siguientes cuestiones: la identificación de la persona o personas que hayan cometido presuntamente las conductas o hechos discriminatorios, los hechos que motivan la incoación del procedimiento, así como la identificación de la persona que va a instruir el expediente, al objeto de que pueda ser, en su caso, recusada de conformidad con la legislación vigente.

4.– El acuerdo de iniciación debe ser comunicado a la persona que instruya el procedimiento y notificado, tanto a la persona contra quien se formule la queja, como a quien la haya presentado, si es a instancia de parte.

SECCIÓN 3.ª INSTRUCCIÓN

Artículo 16.– Diligencias de investigación.

1.– Una vez adoptado el acuerdo de iniciación, se ha de proceder a practicar las diligencias de investigación necesarias para el esclarecimiento de los hechos. Los actos de investigación de la Defensoría deben estar directamente relacionados con las posibles conductas o hechos discriminatorios, sin que puedan realizarse más que los estrictamente necesarios para el esclarecimiento de aquellos.

2.– Todas las personas físicas y jurídicas sometidas a la investigación de la Defensoría tienen el deber de facilitar su labor, aportando en el plazo determinado por la Defensoría, que no podrá ser inferior a diez días, los datos, documentos, informes o aclaraciones que, siendo necesarias para el esclarecimiento de los hechos, les sean solicitadas, y facilitando, previo aviso, el acceso a sus dependencias, salvo que éstas coincidan con su domicilio, en cuyo caso deberá obtenerse su expreso consentimiento.

3.– Ikerketaren eraginpean dagoen pertsonak, edo bere enplegatuek –persona juridikoa bada– eskatutako agiriak bidaltzeari uko egiten badiote edo bidaltzean zabarkeriaz jokatzeko badute, eta horren ondorioz Defentsa Erakundeak eskatutako informazioa eskuratzeko edo hura dagoen egoitzara sartzeko eragozpenak badi-tu, hori Defentsa Erakundearen urteko txostenean ager-raziko da. Dena dela, otsailaren 18ko 4/2005 Legean adierazita dagoenaren arabera zehapenak ezarri ahal izango dira.

4.– Kexa jaso dutenek eta 12. artikuluaaren arabera interesdunak direnek gutxienez hamar eguneko epea izango dute nahi beste alegazio, agiri edo informazio aurkezteko, eta egokiak iruditzen zaizkien frogak proposatzeko, zein baliabide erabili nahi duten zehazteaz bat. Prozedura izapidetzen duenak frogaren bat ukatu egiten badu, iruditzen zaiolako ez dela egokia edo ez dela beharrezkoa, erabakia arrazoitu egin beharko du.

5.– Edonola ere, Defentsa Erakundeak egiten dituen ikerketak zuhurtziaz handienaz egiaztatu beharko dira; gainera, txostenetan egokitzen jotzen dituen iritziak sartu ahal izango ditu.

6.– Ikerketak irauten duen bitartean kriminaltasunaren arazoizko zantzuak agertzen badira, Defentsa Erakundeak horien berri eman beharko dio Fiskaltzari.

17. artikulua.– Entzunaldiaren tramitea.

Kexa jaso duenak eta 12. artikuluaaren arabera interesdunak direnek ikerketa-izapide guztietara iristeko bidea izan behar dute, eta izapide horiek espedienteen jasota geratu beharko dute, behar bezala. Eta hizpidea ere eman behar zaie, beti, beren deskargurako, edo zer gertatu den argitze aldera egokiak iruditzen zaizkien alegazioak egin ditzaten, eta agiriak edo nahi duten beste elementuren bat aurkez dezaten, gutxienez 10 eguneko epean.

4. ATALA. AMAIERA

18. artikulua.– Ebazpena.

1.– Prozedura amaitzen duen ebazpenean ikerketaren emaitzen berri eman behar da, eta interesdunei jakinarazi. Beste erakunde baten eskari arrazoitu baten ondorioz hasitakoa bada prozedura, erakunde horri ere jakinarazi behar zaio ebazpena.

2.– Ebazpen horretan, bazterketako egoera edo jardunbideak edo emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna eragotzi ahal dutenak desagerrarazteko egokitzen diren adiskidetze-neurriak proposatu ahal zaiz-

3.– La negativa o negligencia en el envío de la documentación solicitada, así como cualquier otra actitud, por parte de la persona sometida a investigación o de sus empleados o empleadas si se trata de una persona jurídica, que obstaculice o impida a la Defensoría el acceso a la información requerida o a las dependencias en que se encuentre, se hará constar en el informe anual de la Defensoría, sin perjuicio de las sanciones que les pudieran ser impuestas en virtud de lo señalado en la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

4.– La persona contra quien se dirija la queja y aquella que tenga la condición de interesada según el artículo 12, dispondrán de un plazo, no inferior a diez días, para aportar cuantas alegaciones, documentos o informaciones estime convenientes, así como para proponer las pruebas que estime oportunas, concretando los medios de que pretenda valerse. En el caso de que quien instruya el procedimiento rechace la práctica de alguna prueba por considerarla improcedente o innecesaria, deberá motivar su decisión.

5.– Las investigaciones que realice la Defensoría se han de verificar dentro de la más estricta reserva, sin perjuicio de las consideraciones que estime oportuno incluir en sus informes.

6.– Si en el curso de las investigaciones aparecieran indicios racionales de criminalidad, la Defensoría los debe poner en conocimiento del Ministerio Fiscal.

Artículo 17.– Trámite de audiencia.

La persona contra quien se dirija la queja y aquella que tenga la condición de interesada según el artículo 12, han de tener acceso a todas las diligencias de investigación practicadas, que deberán estar debidamente documentadas en el expediente. Asimismo, en todo caso, se les ha de dar audiencia, con el objeto de que realicen, en un plazo no inferior a 10 días, las alegaciones y aporten los documentos u otros elementos que consideren oportunos en su descargo o a los efectos del esclarecimiento de los hechos.

SECCIÓN 4.ª FINALIZACIÓN

Artículo 18.– Resolución.

1.– La resolución que ponga fin al procedimiento ha de dar cuenta del resultado de las investigaciones y será notificada a las personas interesadas. Si el procedimiento se hubiera iniciado como consecuencia de petición razonada de otro órgano, también se comunicará a éste la resolución dictada.

2.– En la resolución pueden proponerse a las partes las medidas de conciliación que se consideren oportunas con el fin de erradicar situaciones o prácticas discriminatorias o que puedan obstaculizar la igualdad de

kie alderdiei. Horretarako, kexa bere aurka jarrita duen pertsonari gomendioak ere egin ahal zaizkio.

3.– Kexa bere aurka jarrita duen pertsonak Defentsa Erakundearen gomendioak urratzen baditu, Erakunde horrek laguntza teknikoa emango dio eragindako pertsonari, hark bazterketagatiko erreklamazioak beste erakunde administratibo edo judicial batzuetan tramitatu ahal izan ditzan.

4.– Prozedura hasi eta handik sei hilabetera oraindik ez bada ebazpena jakinarazi, iraungita geratuko da. Baina prozedura geldiarazi beharra gertatzen bada, eta kexa jaso duen horren erruz baldin bada, geldialdi horrek irauten duen bitartean epe horren zenbaketa eten egin beharko da.

5.– Alderdiren batek eskaturik izapidetu bada prozedura, hasi eta handik sei hilabetera oraindik ez badute ebazpena jakinarazi, ulertu beharko da kexari ez diotela kasurik egin.

6.– Defentsa Erakundearen ebazpenek administrazio-bidea amaitzen dute, auzitegietan horien aurka egiteari dagokionez.

IV. KAPITULUA

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANA

19. artikulua.– Eusko Legebiltzarrekiko harremana.

1.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu behar ditu egiten dituen urteko eta aparteko txostenak, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 73. eta 74. artikuluetan ezarrita dagoenaren arabera.

2.– Urteko txostenak eduki hauek bildu behar ditu, gutxienez:

a) Administrazioaren kabuz nahiz alderdiek eskatuta zenbat ikerketa egin diren eta zein motatakoak izan diren, eta horien emaitzak, egindako adiskidetze-proposamenak eta gomendioak, eta horiek onartu diren ala ez, eta hala badagokio, kasuren batean Defentsa Erakundearen ikerketa-jarduera oztopatu edo eragotzi den.

b) Ukatutako kexen eta ukatzeko arrazoiaren zerrenda.

c) Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera emandako irizpenen zerrenda.

d) Zenbat aholkularitza-jarduera egin diren, eta zein motatakoak izan diren.

e) Legeak egin eta eraldatzeko azterlan eta proposamenak egin badira, horien zerrenda.

f) Interesgarritzat jotzen diren gainontzeko gai guztiak.

oportunidades de mujeres y hombres. A tal fin, también pueden dirigirse recomendaciones a la persona contra quien se formula la queja.

3.– En el caso de que la persona contra quien va dirigida la queja incumpla las recomendaciones realizadas por la Defensoría, ésta facilitará a la persona afectada asistencia técnica de cara a tramitar sus reclamaciones por discriminación ante otras instancias administrativas o judiciales.

4.– Si la resolución no hubiera sido notificada en el plazo de seis meses desde la iniciación del procedimiento, se producirá la caducidad de éste. El transcurso del referido plazo quedará interrumpido mientras el procedimiento se encuentre paralizado por causas imputables a la persona contra quien se formula la queja.

5.– Si instruido un procedimiento a instancia de parte en el plazo de seis meses desde su inicio no se notifica la resolución, se entenderá que la queja no ha sido atendida.

6.– Las resoluciones de la Defensoría agotan la vía administrativa a los efectos de su posible impugnación ante los tribunales.

CAPITULO IV

LA RELACIÓN CON OTRAS INSTITUCIONES

Artículo 19.– La relación con el Parlamento Vasco.

1.– La Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres ha de presentar ante el Parlamento Vasco los informes anuales y extraordinarios que elabore, de acuerdo con lo establecido en los artículos 73 y 74 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

2.– El informe anual debe incluir al menos los siguientes contenidos:

a) Relación del número y tipo de investigaciones llevadas a cabo, tanto de oficio como a instancia de parte, y el resultado de las mismas, señalando las propuestas de conciliación y las recomendaciones realizadas y si han sido aceptadas o no, así como, en su caso, los supuestos en los que se haya dificultado o impedido la acción investigadora de la Defensoría.

b) Relación de las quejas rechazadas y sus motivos.

c) Relación de dictámenes emitidos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 75 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

d) Relación del número y tipo de asesoramientos llevados a cabo.

e) En su caso, relación de estudios y de propuestas de legislación y de reforma legislativa realizadas.

f) Cualesquiera otras cuestiones que se consideren de interés.

3.– Defentsa Erakundea Legebiltzarreko batzordeetan agertuko da, horretarako deialdia egiten badiote. Batzorde horietan agertzeko ere eska dezake, egokitzen jotzen duenean.

20. artikulua.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekiko harremana.

1.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza, Defentsa Erakundearen eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko harremanetarako organoa da.

2.– Defentsa Erakundeak Eusko Legebiltzarrean aurkezten dituen urteko eta aparteko txostenen berri eman go dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritzari, jakinaren gainean egon dadin.

3.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak haien jarduerak koordinatzeko eta elkarri laguntzeko beharrezko mekanismoak egituratu behar dituzte.

21. artikulua.– Ararteko Erakundearekiko harremana.

1.– Defentsa Erakundeak sexuagatiko bazterketako egoerei buruzko kegak Ararteko Erakundeari igorri behar dizkio, baldin eta horren jarduera-eremuari bada gozkio.

2.– Defentsa Erakundeak, bere eskumenak erabiliz, Ararteko Erakundearekiko koordinazioa eta lankidetzaz sustatu behar ditu, herritarrak sexuagatiko bazterketen aurka defendatzeko eta emakumeen eta gizonen tratu berdintasuna sustatzeko; horretarako, akordioak sinatuko ditu, edo egokitzen jotzen dituen mekanismoak erabiliko ditu.

22. artikulua.– Beste erakunde batzuekiko harremana.

Defentsa Erakundeak komenigarritzat jotzen dituen hitzarmen edo akordioak sinatu ahal izango ditu antzeko erakundeekin edo tokiko, erkidegoko, estatuko edo estatuaz gaindiko beste erakundeekin, baldin eta giza eskubideen eta emakume eta gizonen berdintasunaren defentsan lan egiten badute.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko ekainaren 13an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

3.– La Defensoría acudirá a las comisiones parlamentarias correspondientes cuando fuera convocada. También puede solicitar su asistencia a las mismas cuando lo considere oportuno.

Artículo 20.– La relación con Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

1.– La Dirección de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer es el órgano de relación de la Defensoría con la Administración de la Comunidad Autónoma.

2.– La Defensoría dará traslado de los informes anuales y extraordinarios que presente ante el Parlamento Vasco a la Dirección de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer para su conocimiento.

3.– La Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer han de articular los mecanismos necesarios para la coordinación de sus actuaciones y la colaboración entre sí.

Artículo 21.– La relación con la institución del Ararteko.

1.– La Defensoría debe remitir a la institución del Ararteko las quejas referidas a posibles discriminaciones por razón de sexo que se enmarquen en su ámbito de actuación.

2.– En el ejercicio de sus competencias, la Defensoría debe promover la coordinación y colaboración con la institución del Ararteko en la defensa de la ciudadanía ante las discriminaciones por razón de sexo y en la promoción de la igualdad de trato de mujeres y hombres, mediante la suscripción de acuerdos o a través de los mecanismos que consideren más adecuados.

Artículo 22.– La relación con otras instituciones.

La Defensoría puede suscribir los convenios o acuerdos de colaboración que estime convenientes con instituciones análogas o con otras instituciones de ámbito local, autonómico, estatal o supraestatal que desarrollen su labor en el ámbito de la defensa de los derechos humanos y de la igualdad de mujeres y hombres.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de junio de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.